

Concurso de vídeos - Bideo lehiaketa

# ● RECACCIONA

Parte hartzeko garaia da!

**18-30 urte** años

**Irailak 30** de septiembre

**1.000 €, 300 €, 100 € \***

\*Zure parte-hartze proiektuetarako / Para tus proyectos de participación

**egk.org**



**Euskadiko Gazteriaren Konsteilua**  
Consejo de la Juventud de Euskadi

**Antolatzailea**  
Organiza:

Euskadiko  
Gazteriaren  
Konsteilua



Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi

**Diru laguntzailea**  
Con la ayuda económica de:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Gizarte Politikako Departamentua  
Departamento de Política Social



## ● RECacciona

### Parte hartzeko garaia da! Bideo lehiaketa

Etxean geratzeko garaia baino, kalera atera, parte hartu eta gure **harri koskorra** jartzeko momentua dela iruditzen zaizu?

Elkarteetan, Gobernu Kanpoko Erakundeetan, astialdi taldetan, alderdi politikoetan eta gizarte mugimenduetan **gazteok egiten dugun lana** gauzak aldatzeko ezinbestekoa dela sentitzen al duzu?

Zuk ere uste duzu pertsona txiki askok, leku txikietan, gauza txikiak egiten... mundua **aldatu** dezakegula?

Kontatu ezazu bideo batean! Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik "RECacciona. Parte hartzeko garaia da!" lehiaketa abiatu dugu.

Zure bideoen bitartez, eta zure erara, **parte hartzearen garrantzia** erakutsi dezazula gustatuko litzaiguke. Gure helburua hauxe da: gure eskubideen jabe eta hiritar aktibo izateko parte hartzeak duen balioa ikustaraztea.

Animatzen al zara?

¿Te apuntas?

- **Gutxienez bi** pertsonaz osatutako taldea osatu.
- **izen-emate** orria bete (irailaren 15a baino lehen) eta kontatu iezaguzu zertan gastatuko zenukeen saria, irabaziz gero.
- Gehienez hiru minutuko iraupena duen bideoa egin, gai honen inguruan: "RECacciona. Parte hartzeko garaia da!".
- **Youtube-ra** igo ezazu, bidali lotura [komunika@egk.org](mailto:komunika@egk.org) helbidera eta bidali kopia bat DVDan Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Gasteizko egoitzara, irailaren 30a baino lehen. eta Euskadiko Gazteriaren Kontseilura bidali, irailaren 30a baino lehen..



# OINARRIAK

## 1. Helburua

Gizarte- **parte hartzea** ikustarazi eta **balioan** jartzeko abiatu du lehiaketa hau Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, baita gazteen aretan elkartegintza suspertzeko ere.

## 2. Gaia

Lehiaketaren gaia honako hau da: “RECacciona, parte hartzeko garaia da”. Bideoe parte hartzea eta elkartegintzaren inguruan hitz egin behar dute. Adibidez:

- Gazteen **inplikazioa** sustatzeko ideiak.
- **Boluntario edo aktibista** izatearen balioa azpimarratzen duten bideoak.
- Elkarte, kolektibo eta **gizarte mugimenduek** gizartea eraldatzeko duten garrantzia nabarmentzen duten lanak.
- Indibidualismoa eta konpromiso-ezaren aurrean, gizartearen alde gure harri koskorra jartzearen abantailak ikustarazten dituzten zintak.
- ... eta okurritzen zaizkizun bestelako ideiak.

## 3. Parte hartzaileak

**18 eta 30** urte bitarteko pertsona guztiek hartu dezakete parte.

## 4. Bideoen ezaugarriak

Proposatutako gaiarekin bat etortzeaz gain, honako baldintzak bete behar dituzte bideoek:

- Orijinalak eta **aurrez argitaratu gabeak** izan behar dira.
- **Euskaraz, gazteleraz edo bi hizkuntzatan** izan daitezke. Gazteleraz izatekotan, euskararen presentziaren bat bermatu beharko da.
- Bideoaren hasieran **lehiaketaren kareta** jarri behar da. Lehiaketa izena ematerakoan jasoko dute kareta parte-hartzaileek.
- **Gehienez hiru minutuko** iraupena izatea, kareta barne.
- **Youtube**-k onartutako formatuetako batean egotea.
- Irudi eta soinu guztien **eskubideak libreak** izan beharko dira edo, bestela, titularraren **baimenaren** ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ez ditu biolentzia, sexismoa eta arrazakeria edukiak edo pertsonen oinarritzko giza **eskubideak urratzen** dituzten bideoak onartuko. Era berean, EGK-k ez du izango bideoen edukien eta iritzien gaineko ardurarik.



## 5. Lehiaketaren faseak

Parte hartzaileek **izen emate** orria bete beharko dute ezer baino lehen. Formulario horretan, taldearen ordezkaria nor den zehaztu beharko dute, eta saria irabaztekotan, zertarako erabiliko lukete azaldu beharko dute (Sariak atala ikusi).

Behin Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak izen-ematea konfirmatzen duenean, taldeak bere lana bidali ahal izango du, zehaztutako epeen barruan.

Lehiaketak honako faseak izango ditu:

- **Izen emateak.** Ekainaren 15etik irailaren 15era.
- **Bideoen** bidalketa. Ekainaren 30etik irailaren 30era.
  - Bideoa Youtubera igo eta lotura bidali, [komunika@egk.org](mailto:komunika@egk.org) helbidera.
  - Horrez gain, DVD kopia bat bidali Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Gasteizen duen egoitzara. Helbidea: Ramiro de Maeztu kalea, 15, behea, 01008, Vitoria-Gasteiz (Araba).
- **Bozkaketa eta epaimahaia.** Irailaren 30etik urriaren 15era.
- Sarien **jakinarazpena:** urriaren 30a baino lehen.
- **Sari-banaketa:** azaroaren 30a baino lehen.

## 6. Sariak

Honako sariak banatuko dira:

- **Lehenengo saria: 1.000** euro, parte-hartze edo gizarte-proiektu batean parte hartzeko \*.
- **Ikusleen saria (bozken emaitza): 300** euro, parte-hartze edo gizarte-proiektu batean parte hartzeko \*.
- **Ikusleentzat saria: 100** euro bidezko merkataritza edo nekazaritza ekologikoko saltoki batean gastatzeko (aukeran).

\*Zertarako erabili daitezke lehenengo eta bigarren sariak?

- Elkarte edo gizarte mugimendu batean **ekintzak** antolatzeko.
- **Lankidetz**a proiektu batean parte hartzeko.
- **Bidaia solidario** batean parte hartzeko.
- **Brigada** batean parte hartzeko.
- Gaiarekin lotutako **ikastaro** bat egiteko, dena dela ikastaroa egiten den tokia.
- Elkarte bati, gizarte proiektu bati edo Gobernu Kanpoko Erakunderen bati dirua **emateko**.
- Elkartegintza **esperientziaren bat ezagutzeko** bidaia egiteko.
- **Elkartruke** bat antolatzeko.
- Kolektibo batentzat **materiala** erosteko.
- Gizarte- parte hartzearekin zerikusia duen **proiekturen bat** gauzatzeko (bideo bat grabatu, argazki erakusketa bat egin, koreografia bat muntatu, argitalpen bat editatu, jardunaldi batzuk antolatu...).
- Okurritu ez zaizkigun ekimenetarako (aldez aurretik **galdetu**).



Parte hartzaileek saria zertarako erabili nahi duten zehaztu beharko dute [izen-emate](#) orrian. Zalantzaren bat izatekotan, [komunika@egk.org](mailto:komunika@egk.org) helbidera idatzi edo 945 22 06 01 telefonora deitu dezakete. Dena den, behin saria jasotakoan ideiaz aldatzekotan, saria erabiltzeko beste ideiaren bat aurkeztu diezaiokete parte-hartzaileek Gazteriaren Kontseiluari.

Sariak emateko, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak honakoa egingo du: irabazleen proiektu edo ideia **gastuak ordaindu**, sariaren zenbateko osoa gastatu arte (inprenta, hegazki-txartelak, ikus-entzunezko materiala... edo parte-hartzaileek aukeratu dituzten bestelako gastuak). Saria 2014ko irailaren 30a baino lehen erabili behar izango da. Proiektu edo ideia ezaugarriak direla-eta, eraginkorragoa ikusten badu, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 1.000 euroko **txekea** emango die lehenengo sariko irabazleei, eta 300 euroko txekea ikusleen saria jaso dutenei. Ondoren, sarituek diru hori alde zuzenetik zehaztutako proiektu edo ideian gastatu dutela justifikatu behar izango dute, fakturen bitartez, 2014ko irailaren 30a baino lehen.

Ikusleentzako saria 2013ko abenduaren 15a baino lehen erabili behar izango da. Saritutako pertsonak ez badu egun horren bezpera baino lehen ez e-mail bitartez ezta telefono bitartez ere erantzuten, saria banatu gabe geratuko da.

## 7. Epaimahaia

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko bi langilek eta Batzorde Iraunkorreko hiru kidek osatuko dute epai-mahaia.

Honako irizpideak izango ditu kontutan epai mahaiak:

- Lanak proposatutako **gaia** ondo adieraztea.
- Mezua **jatorrikoa** izatea.
- Bideoa **sortzailea** izatea.

Oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten lanak baztertzeko eskubidea du epai mahaiak.

Epai mahiaren erabakia zehazteke dagoen leku eta egun batean emango da argitara.



## 8. Alderdi legalak

Izena ematerakoan parte hartzaileak lehiaketaren **oinarriak irakurri eta ulertu dituela** adierazten du. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztien **onarpena** suposatzen du. Parte hartzaileak izango dira bideoetan azaltzen diren pertsonengatik irudi eskubideak direla eta izan daitekeen edozein erreklamazioaren erantzule bakarrak.

Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoaren arabera, parte-hartzaileek izen-emate formularioa bidaltzerakoan Gazteriaren Kontseiluari emandako datu pertsonalak lehiaketarako beharrezkoak diren izapide eta gestioetan kudeatzeko baimena ematen diete.

Lehiaketan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote EGK-ri materiala, doan eta egoki ikusten den edozein euskarritan **hedatzeko, banatzeko, erakusteko, publikoki komunikatzeko**, zabaltzeko eta erreproduzitzeko.

Euskadiko Gazteriaren kontseiluak lehiaketa honetako oinarriak edozein momentutan interpretatzeko edo aldatzeko eskubidea du, baitan lehiaketa bera bertan behera uzteko ere, beti ere tartean neurri hori bidezkotzen duen arrazoiren bat bada. Edozein kasutan, EGK-k oinarri hauetan eman daitekeen edozein aldaketa, eta bere kasuan, lehiaketa osoaren baliogabetzea bide honen bidez komunikatzeko konpromisoa du parte-hartzaile guztiek informazio hori eskura izan dezaten.

### ● Kronograma

**Izen-ematea:** ekainaren 15etik irailaren 15era.  
**Bidalketa:** ekainaren 30etik irailaren 30era.  
**Bozkaketa:** irailaren 30etik urriaren 15era.  
**Irabazleen jakinarazpena:** urriaren 30<sup>a</sup> baino lehen.  
**Sari banaketa:** azaroaren 30a baino lehen.

